

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

##### Gazteria

**Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko otsailaren 16an hartutako erabakiaren laburpena: 2018an gazteei zuzendutako proiektu eta zerbitzuak bideratzeko diru-laguntzak emateko deialdia**

BDNS (identifikatzailea): 387423

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> kontsulta daiteke.

#### **Lehena. Onuradunak**

Gazteei zuzendutako proiektu edo zerbitzuak sortzen dituzten eta Gasteizko udalerrriaren esparruan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, legez eratuta badaude eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Erakundeen Erregistro Nagusian eta Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emanda badaude.

#### **Bigarrena. Helburua**

2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean bideratuko diren proiektuak antolatu eta gauzatzetik sortzen diren gastuak ordaintzen laguntzea da deialdi honen xedea. Laguntza horiek jasotzeko, proiektu horien helbururik behinena gazteei gizarteratze aktibo eta parte hartzailea ahalbidetzen dieten alternatiba eta baliabide espezifikoak eskaintzea izan beharko da.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko otsailaren 16an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 25.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

30 egun natural laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen lanegunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 26a

*Alkatetzaren eta Udal Harremanen Saileko zuzendaria*  
**BLANCA GUINEA ASTOBIZA**